

umiak aingeru?

A. Martzel, op.

Ume gaiztoak zelan dabizan
esan gura dot bertsoan,
gauza zuzenik ezin dalako
egin eurakin sermotan.
Gauza askotan
eztagoz lotan,
artu guztiok gogotan;
ume guztiak aingeru dira
eurena egitekotan!

Jaio orduko ikasten dabe
egiten negar garraxi,
amen biotza irabazteko
dauke aparteko grazi.
Umeak azi,
nekeak bizi,
ba dago au nun ikasi;
ume artian ezin leike gaur
tratu onik irabazi.

Orpo gorritan egiten dabe
begi txarretik kiñua,
eta atzetik atso-agurari
ezpan biurrrez ziñua.
Negar soñua,
ta engañua,
ai, ume demoniñua...
Emon bearko dautzu makillaz
aitak bedeinkaziñua!

Jaio ta gera eskolan dabiz,
ezin ikasi sumarren,
bañña karrera, futbol paperak
ba dakie zer dakarren.
Belai itaurren
ez eitearren,
ilgo litzakez pozarren;
ume okerrak zuzenduteko
fabrikaik ba al da Eibarren?

Oiñez ibiltan asi orduko,
sagu katua lez bardin,
ba dakie nun daukozan amak
koko, goxo ta mandarin.
Eta nok jakin
zer daben egin?
guzurra diño e arin!
aingeru dira umiak, bañña
kontuz ibilli eurakin...

Aide ta beko txori piztiak
bardin etxe ta mendiko,
umiak bizi diran artian
ez dira bakez biziko.
Ari ostiko,
orreri piko,
bestea uretan ito;
eta gatzerdi, batzuek beintzat
ez dirala ume betiko!

Ikasi bear dan orduetan
gaixorik dauke burua,
euren inperna gaiztoena da
eskolako liburua.

Euren zerua
euzki berua,
maite dabe mai ingurua;
beti daukozuz prest egiteko
tiro-plato segurua.

Orreïn amesak izaten dira
fubolak eta patiñak,
olgetan galtzen dabez alperrik
aitaren diru txintxiñak
Orreïn agiñak,
zorrotz ta piñak,
jateko sagar gordiñak.
Atze estunak yaukozak, baiña
oraïndik zentzun ariñak!

Laster ikasten dabe nun diran
keixa, intxaur ta mizpillak,
euren atzetik naiko zeregin
dauke guarda zibillak.
Oneik mutillak
jateko opillak,
orretan dira abillak!
jaten gizonko, baiña lanean
beti mutiko oskillak.

Esanak esan, gure umiak
danak aingeru ei dira,
auze siñistu eziñik nago
gaurko umiai begira.

Jira ta bira,
saka ta tira,
bein geldituko ba 'lira...
Zerua nai dabena, beioa
aingeru orreïn erdira.

Gaurko bertsoak entzunda gero
ai,ene ume biurra,
kolkoan artu bearko dozu
bein da betiko bildurra.
Amak egurra,
aitak atzurra,
ire azkena ziurra:
praka zar batzuk aldian eta
beti kokota zimurra.

Millaça diran ume gaiztoak
arturik gaur kantagarri,
ortxe dituzu doñu zarrïan
dozena bat bertso barri.
Umeai sarri
ezin igarri,
agaitik nago ni larri:
guzurra ba da, erru guztiak
Aita Martzel'i ezarri.